

5. IKASGAIA.

KAPITALEZKO BALTZUEN ORGANOAK

1.SARRERA

2. BATZAR OROKORRA

2.1 Batzar Orokorrari buruzko oinarrizko azalpenak

2.2 Batzar Orokorraren funtzionamendua

2.3 Baltzuko akordioak

2.4 Baltzuko akordioen aurkapena

3. ADMINISTRAZIO ORGANOA

3.1 Kontzeptua

3.2 Baltzuaren administratzaileak

3.3 Baltzuaren ordezkapena

3.4 Administrazio kontseilua

3.5 Administratzaileen erantzukizuna

1. SARRERA

Baltzu anonimoak zein erantzukizun mugatuko baltzuak beharrezkoa dute organuez baliatzea baltzuaren borondea osatu era trafikoan agertzeko. Legeak bi organo arautzen ditu modu bananduan: a) *Batzar Orokorra*, organo deliberatzaile gorena, zeinaren akordioetan bazkideen borondatea adierazten den; eta b) *Administrazio Organoa*, organo exekutatzailea zeina baltzuaren kudeaketaz eta hirugarrenen aurrean baltzua ordezkatzear arduratzen den.

Legeak Batzar Orokorra organo gorena eta subirano bezala ulertzen du eta beraz, Administrazio Organoa honen menpe geratzen da. Hortaz, bi organoen arteko harremana hierarkikoa da baina ez da bakarrik dinamika horretan ulertzen. Behin Legean eta estatutoetan bakoitzaren eskuduntza finkatu ondoren organo bakoitzak bestearen eskumenak errespetatu behar ditu. Beraz bi irizpideak kontutan izan behar dira bi organuen arteko harremanak ulertzeko.

Bi organuek pisu desberdina dute baltzuaren funtzionamenduan honen egituraren arabera. Baltzu irekietan administrazio organua da benetan erabakiorra, naiz eta formalki subiranoa batzarra izan. Ez da hori gertatzen baltzu itxiagoetan eta bereziki erantzukizun mugatuko baltzuan, non batzarraren papera errealitatean askoz ere garrantzitsuagoa den.

2. BATZAR OROKORRA

2.1 Oinarrizko azalpenak

2.1.1 Kontzeptua

Legeak Batzar Orokorraren kontzeptu hau eskaintzen du (159. art.): *bazkideen bilera, deialdia egin ondoren baltzuaren egoitzan egiten dena, zeinetan batzarraren eskuduntzaren barnean geratzen diren gaietaz, legeak edo estatutuek ezarritako gehiengoz, deliberatu eta erabakiak hartzeko.*

Batzar Orokorra bazkideen edo bazkidearen (bazkide bakarreko baltzuen kasuan) borondatea eratzen eta adierazten duen organoa da. Organo gorena

dela esan ohi da bertan hartutako erabakiek administratzaile eta bazkide guztiei, nahiz eta Batzarrean parte hartu ez edota erabakiaren kontra joan, derrigortzen dietelako (159.art.). Bestalde bera da administratzaileak izendatzen eta kargugabetzen dituen eta bera da baita eskumenen azken banaketa egiten duena.

2.1.2. Ezaugarriak

Batzar Orokorra *beharrezkoa* den organo bat da, izan ere, baltzu anonimoan zein erantzukizun mugatuko baltzuan derrigorrez egon behar du eta legeak ez du ordezeko prozedurarik ezarri bazkideen borondatea adierazteko. Baina, ez da organo iraunkor bat bazkideak gutxienez urtean behin elkartzen baitira, baina askotan bakarrik urtean behin. Gainera, organo honetan *barneko efektuak izango dituzten erabakiak hartzen dira* (kanpora begira efekturik ez dute) erabaki horien exekuzioa administrazio organoaren esku geratuz.

Batzar Orokorraren baitan hartzen diren erabakiak derrigorrez bilera, hausnarketa eta bozketa bidez hartuko dira.

2.1.3. Eskuduntza

Batzar Orokorraren kontzeptua eman dugunean adierazi dugu organo hau bere eskuetan geratzen diren gaietaz arduratzen dela, beraz ez du edozein gaiaren inguruan erabakitzeko ahalmenik, nahiz eta organo gorena izan. Batzarraren ahalmena bere eskumenek (legean eta estatutuetan jasoak) mugatzen dute.

Legeak (160.art.) zerrenda bat egiten du zehaztuz zein gai tratatuko diren Batzarrean. Gai hauen inguruan deliberatu eta erabakiko du Batzarrak, hain zuzen: a) urteko kontuen onarpena, emaitzaren aplikazioa eta kudeaketa sozialaren onarpena; b) administratzaileen, likidatzaileen eta beren kasuan kontu-ikuskarien izendapena eta banaketa eta baita, horien gaineko erantzukizuna; c) estatutu sozialen aldaketa; d) kapital sozialaren gehikuntza edo murrizketa; e) lehentasunez harpidetzeko eta bere gain hartzeko aukeraren ezaketa edo murrizketa; f) eraldaketa, elkarteratzea (fusioa), zatiketa eta aktibo eta pasiboaren lagapen globala eta, egoitzaren aldaketa

atzerrira; g) baltzuaren desegitea; h) kitapenaren azken balantzearen onarpena; eta i) legeak zein estatutuak ezartzen dituen bestelako gaiak.

160. artikulok jasotzen duen zerrenda, beraz, zerrenda irekia da. Legaren azterketa eginaz beste hainbat gai aurkitzen ditugu, adibidez: 72. artikulok "kostubidezko eskurapenen" onartzea, 230. artikulok administratzaileei baimena ematea lehiakide baten gestore izateko, edo 352. artikulok bazkide baten kanporatzea erantzukizun mugatuko sozietatean.

Legean jasoetakoaz gain, batzarrak printzipioz administratzaileen funtzioak direnak ere bereganatu ditzazke estatutoetan horrela jasotzen bada. Honela enpresaren politika orokorra, sukurtsal berrien irekitzea, baltzuaren ondarearen hipotekatzea, edo beste gai asko batzarraren esku utzi daitezke. Hori bai baltzu anonimoan hau espreski estatutoetan jaso beharko da. Ez aldiz erantzukizun mugatuko baltzuan (eta hau da bien arteko desberdintadun garrantzitsuena gai honetan), non batzarrak legez eskumen ea mugagabea duen. 161. artikulok araberak estatutuek kontraktorik esan ezean erantzukizun mugatuko batzar orokorrak ahalmena izango du administrazio organoari instrukzioak emateko edo administrazio organoaren erabakiak (kudeaketaren inguruak) batzarraren bahimenarenpean jartzeko.

2.1.4. Batzar motak

Legeak (163.art.) dioen moduan kapitalezko baltzuen batzar orokorrak ohizkoak edo ez-ohizkoak izan daitezke, baina, izatez ez dago funtsezko desberdintasunik bien artean.

Ohizko Batzar Orokorra, lehenik deialdia eginik, derrigorrez ekitaldi bakoitzeko lehen sei hilabetean zehar bildu beharko da eta, bere kasuan, kudeaketa soziala onartu, aurreko ekitaldiko kontuak onetsi eta emaitzen aplikazioaren inguruan erabaki beharko du. Hala ere, batzar honek garrantzia duten bestelako gaien inguruan ere hartu ditzake erabakiak, ez du alde horretatik inongo mugarik.

Aipatzekoa da ohizko batzar orokorra baliozkoa izango dela nahiz eta epetik kanpo egin deialdia edota ospatu (164.art.).

Ohizko batzarrak duen ahalmena delega ezina da ezin baita bere betebeharra beste organo sozial batengan ezarri.

Azaldutakoa kontuan hartuz, esandako ezaugarriak betetzen ez dituen batzarrak ez-ohizko izaera izango du (165.art.). Orohar aipatutako bi batzar motek eskumen berdinak dituzte baina salbuespen bakarra da urteko kontuen onarpena eta jarduera sozialaren emaitzaren aplikazioa ohizko batzarrari bakarrik dagokiola.

Administratzaileek ezohizko batzarra konboka dezakete, beti ere, interes sozialerako egoki ikusten badute. Hortaz, argi dago ezohizko batzarra diskrezionalki ospatzen dela administratzaileek gai baten inguruan bazkideen iritzia behar dutenean. Administratzaileez gain bazkideek ere eskatu dezakete batzarra biltzea, baina kapital sozialaren %5a bildu behar dute eta eskaeran batzarrean tratatuko diren gaiak azaldu (168. art.).

Atal hau bi batzar mota daudela esanez hasi dugu, baina, hirugarren mota bat era jasotzen du legeak: *batzar unibertsala* (178.art.). Legea dio deialdirik egin gabe (deialdiren bat egongo da baina informala) batzar orokorra edozein gai tratatzeko eratua egongo dela, beti ere, kapital sozial guztia bertan badago edo ordezkaturia badago eta ahobatez bilera egitea onartzen bada. Batzar hau ere edozein arazo aztertzekeo gai izango da, ez du muga materialik. Gainera, batzar unibertsala nazio lurraldeko edo atzerriko edozein tokitan egitea bahimentzen da (ez da baltzuaren egoitzean egin behar).

2.2. Batzar orokorraren funtzionamendua

2.2.1. Deialdia

Batzar orokorraren deialdiak nolakoa izan behar duen aztertzekeo bi puntu ikusiko ditugu: lehenik, deialdia egiteko *legitimazioa* nortzuk duten ikusiko dugu eta ondoren, zein *ukanbehar* eman behar diren legezko deialdia egiteko.

Legearen (166.art.) esanetan Batzar Orokorrera deitzeko legitimatuak daude administratzaileak eta, bere kasuan, baltzuko likidatzaileak. Legitimatutako hauek deialdia egingo dute interes sozialerako beharrezko ikusten dutenean eta

gutxienez legeak edo estatutek ezarritako data edo epetan (167.art.). Honetaz gain, administratzaileek obligazioa izango dute Batzarrerako deialdia egiteko kapital sozialaren %5a ordezkatzeko duen bazkideak edo bazkideek eskatzen badute (168.art.).

Antzeman daitezkeen bezala *deialdia egitea ezinbesteko baldintza* da batzarraren eraketa balizkoa izateko, beraz, deialdirik gabe ezin daitezke batzarraz hitz egin zentzu legal batean (batzar unibertsala da salbuespena). Ezinbesteko baldintza izateaz gain, Legeak gutxienezko baldintza formalak galdatzen ditu deialdia egiteko.

Legeak (169.art.) dio legean aurreikusitako ohizko batzarrareko edo estatutoetan aurreikusitakoetarako deialdirik ez bada egiten edozein bazkidek jo dezakeela egoitza sozialeko merkataritzako epailearengana berak egin dezan, aurretiaz horren berri administratzaileei emanaz. *Deialdi judicial* hau eta bazkide eta administratzaileen artean eman daitezkeen desadostasunak konpontzeko erabiltzen da.

Esan beharra dago legeak ezartzen dituen deialdirako baldintza eta epeak (S.A. hilabete bat / S.L. hamabost egun) aginduzko izaera dutela eta beraz beraien ez betetzak Batzarraren zein bertan hartutako erabakien baliogabetasun absolutua ekarriko lukeela. Gainera, legeak ezarritako gutxienezko baldintzak ezin dira estatutu bitartez baliogabetu, hala ere, horrek ez du esan nahi estatutu bitartez deialdirako baldintza berriak jarri ezin direnik.

Batzar orokorrak izan behar dituen ukanbeharrei dagokionez, legeak (173.art.) Merkataritzako Erregistroko Boletin ofiziala eta baltzuko web gunea proposatzen ditu Batzarraren deialdiaren iragarkia publikatzeko. Baltzuak web gunea izango ez balu baltzua kokatuta dagoen probintziako zirkulazio handieneko aldizkariaren batean argitaratu beharko litzateke.

Aipatautako ukanbehar hau modu malguago batean arautzen du legeak (173.2art.) erantzukizun mugatuko baltzuentzat. Hauen estatutuetan ezarri daitezke deialdia baltzuko web gunean egitea eta hau ez bada existitzen baltzua kokatuta dagoen eskualdeko zirkulazio handieneko aldizkarian egitea

edo edozein hedabidetatik egitea, beti ere, bazkide guztiei iragarkia iristeko egokiak badira.

2.2.2. Eraketa

Kapitalezko baltzuen bazkideen funtsezko eskubideak dira batzar orokorretan parte hartzea eta bozkatzea eta baita bertan hartutako erabakiak aurkatzea (93.c.art.). Aldiz, administratzaileentzako obligazioa bat da batzarretara bertaratzea (180.art.). Bi subjeto hauetaz gain, legeak (181.art.) aukera ematen du estatutuetan zuzendari, gerente, tekniko edota gai sozialengan interesa duen edonorren bertaratzea bahimentzea.

Esan bezala bazkideen eskubideetako bat da batzarrera joatea, baina, baltzu anonimoen estatutuetan ezarri daiteke akzio kopuru gutxienerako bat bertaratzeko baldintza gisa (179.2 art.). Aukera hau ez da onartzen erantzukizun mugatuko baltzuetan, non bazkide guztiek izango duten, salbuespenik gabe, parte hartzeko eskubide hori (179.1 art.). Honetaz gain, baltzu anonimoetan eskatu daiteke bazkideek aurretiazko legitimazioa eskatzea batzarrera aurkezteko asmoa badute (179.3 art.).

Atal honekin amaitzeko aipatzekoa da baltzu anonimoetan zenbait erabaki hartzeko *quoruma* eskatzen dela. Honela, batzar orokorraren eraketa baliozkoa izango da lehen deialdian aurkeztutakoek boto eskubidea duen kapitalaren %25a ordezkatzeko badute. Bigarren deialdian berriz, baliozkoa izango da batzarra edozein izanda ere bertaratutako kapital zenbatekoa, beti ere, estatutuek bestelakorik esan ezean (193.art.).

Quorum hori indartu egiten du legeak hainbat akordio hartu ahal izateko: kapitalaren gehitzea edo murriztea, estatutuen edozein aldaketa, obligazioen jaulkipena, akzio edo partizipazio berriak eskuratzeko lehentasun eskubidea murriztea edo baztertzea, baltzuaren eraldaketa, bategitea (fusioa) edo zatiketa, aktiko eta pasiboaren lagapen globala edo egoitza atzerrira eramatea. Kasu hauetan beharrezkoa izango da lehen deialdian boto eskubidea duen kapitalaren %50a egotea eta bigarren deialdian berriz %25a (194.art.).

2.2.3. Eztabaida

Kapitalezko baltzuetako bazkideek *informazio eskubidea* daukate, baina, eskubide honek desberdintasun batzuk ditu baltzu anonimoan eta erantzukizun mugatuko baltzuan (196-197.artk.).

Orohar informazio eskubideak aukera ematen die bazkideei batzarrean tratatuko diren gaien inguruko txosten edo azalpenak eskatzeko, bai batzarra egin baino lehen edota momentuan bertan. Behin informazioa eskatuta, administrazio organoak obligazioa izango du erantzun bat emateko, beti ere, ez bada kontsideratzen informazio horrek interes soziala kaltetzen duela. Baina, administratzaileek ezingo dute informazioa ukatu informazio hori eskatu duten bazkideek kapital sozialeren %25 ordezkatzen dutenean.

2.2.4. Boto ematea

Atal honetan aztertu behar da bereziki *ordezkari bidez egikaritzen den boto eskubidea*. Bazkidea ezin da beti batzarrera pertsonalki hurbildu eta legeak ematen dio orduan ordezkari baten bidez bere eskubideak egikaritzeko aukera. Desberdintasun nabariak daude aztertzen ditugun bi baltzuen artean beraien egituraren arabera. Erantzukizun mugatuko baltzuak baltzu itxiak dira, normalean bazkide gutxikoak eta anonimoak berriz irekiak izan daitezke, milaka bazkideekin, beraien artean inbertsiogile txiki asko, zeinak ez duten baltzuaren erabakietan parte hartzeko interes gehiegirik. Azken honek botu “merkatu” bat sortarazten du baltzua kontrolatu nahi dutenek erabiltzen dutena. Honela bazkide ordezkatuak bilatzen ez duen ordezkapen bat sortzen da. Legeak hainbat baldintza ezartzen dizkio ordezkapen mota honi ordezkatuaren interesak babestu nahian.

Erantzukizun mugatuko baltzuarekin hasiz, legeak (183.art.) aurreikusten du bazkidearen ordezkaria soilik bere bikotekidea, goragoko edo beragoko senideren bat, beste bazkide bat edo dokumentu publikoan emandako bere ondare osoa kudeatzeko ahalmena duen edozein pertsona izan daitekeela. Hala ere, estatutuek bahimendu ditzakete bestelako ordezkari batzuk ere.

Baltzu anonimoan berriz, batzarrera aurkezteko eskubidea duen akzioduna beste edozein pertsona bitartez ordezkaturia izan daiteke nahiz eta azken hori akziodun ez izan. Estatutuek ahalmen hau mugatu dezakete (184.art.).

Baltzu anonimoarekin jarraituz, legeak (186.art.) administratzaileen edota bestelako instituzioen ordezkapena ematea aurreikusten du (gorago aipatu dugun batzarra kontrolatzeko asmoarekin eskatzen den ordezkapena). Ordezkapen honetarako eskaera publikoki egin behar da eta ordezkapenerako ahalmena erakusten duen dokumentuak eguneko gai zerrenda zein izango den zehaztu beharko du, besteak beste. Legeak salbuespen gisa aurreikusten du ordezkariak esandakoaren kontrakoa bozkatu dezaketela agindua eman zen unean aurreikusi ez diren gora-beherak ematen badira eta honek ordezkatuaren interesak kaltetzeko arriskua ekar badu.

2.3. Baltzuko akordioak

2.3.1. Izaera juridikoa

Batzar orokorrak hartzen dituen akordioen izaera juridikoa zein den eztabaidatzen da doktrinan. Onartzen da borondatezko adierazpenak direla eta hortaz, negozio juridikoen kategorian sartzen direla obligazioak sortzen dituzlako. Baina, ez dago argi negozio juridiko horren izaera zein den. Gehiengoaren ustez, aldebakarreko negozio bat da nahiz eta borondate indibidual askoren bitartez eratu.

2.3.2. Akta

Legearen esanetan erabaki sozial guztiak aktetan idatziz jaso beharko dira (202.art.), zeina, Merkataritzako Kodeko 26. artikuluan aurreikusten den liburuan (akta liburua) transkribituko den.

Merkataritzako Erregistroko Erregelamenduak (97.at.) zehatz-mehatz adierazten du aktaren edukia zein izango den: bileraren data eta tokia, deialdia egin den data eta modua, deialdiaren eduki osoa edo gai-zerrenda, boturako eskubidea dutenen zenbatekoa eta horietatik zenbatek duten

ordezkaria, tratatu diren gaien laburpen bat, hartutako erabakien edukia, botuen emaitzak eta aktaren onarpena, besteak beste.

2.3.3. Ziurtagiriak

Merkataritza Erregistroko Erregelamenduaren 109.art. arabera, merkataritzako baltzuen organoen aktak eta erabakiak ziurtatzeko ahalmena daukate: a) idazkariak edo bere kasuan idazkariordeak; b) administratzaile bakarrak edo administratzaile solidarioetatik edozeinek; eta, c) elkarrekiko administrazioaren kasuan, ordezkariatzako ahalmena duten administratzaileak.

Aipatutako pertsonak ziurtagiria igortzean beharrezkoa izango da euren kargua indarrean egotea. Bestalde, ezin ziurtatuko dira onartutako aktetan eta notarioak sinatutakoetan jasoak ez dauden erabakiak.

2.4. Baltzuko akordioen aurkapena

Esan dugu batzarra baltzuen organo subiranoa dela, baina horrek ez du esan nahi, noski, mugarik ez duenik erabakiak hartzerakoan. Batzarrak legeak, estatutoak (aldatzen ez diren arte) eta baltzuaren interesa kontutan izan behar ditu eta errespetatu akordioak hartzerakoan. Batzarraren akordioak aurkatzeko eskubidea gehiengoaren abusuaren kontra gutxiengoak, bere interesak babesteko, duen instrumentu bat ere bada.

2.4.1. Akordio aurkagarriak

Legeak akordio sozialen aurka joateko aukera hiru kasutan aurreikusten du (204.1): *legearen kontrakoak direnean, estatutuen kontra doazenean eta baltzuaren interesa kaltetzen dutenean bazkide baten edo hirugarren baten onuran*.

Akordio sozialen aurka joateko aukera jurisprudentziak baltzua babesteko neurri bezela ikusten du eta bere esanetan ezinezkoa izango da estatutu bidez aurkatzeko eskubide hau ezabatzea.

Hala ere, legeak adierazten du akordio bat ezingo dela aurkatu indarririk gabe utzi bada edota beste akordio baten bitartez ordezkatu bada. (204.3 art.)

Bestalde, argitu beharra dago aurkagarriak diren akordioen artean bi kategoria desberdinu behar direla, izan ere, *akordio deusezak edo deusezgarriak*. Akordioak deusezak dira legearen kontrakoak (bai arrazoi formalengatik bai edukiagatik) eta akordio deusezgarriak berriz estatutuen kontra doazenean (berriro bertan aurrikusitako formak errespetatu gabe hartu direlako edo egukia beraien kontrakoa delako) edo baltzuaren interesak lesionatzen direnean bazkide baten edo hirugarren baten onuran (204.2 art.).

Aipatutako kategoria hauek aurkatzeko kausen larritasunaren arabera ezartzen dira, larritasun maila horrek erregimen juridiko desberdina dakarrelarik berarekin (legitimazio eta akzioen iraungipenean batez ere).

2.4.2 Akzioen iraungipena

Akordio deusezen kasuan, akzioa *urtebeteko epean* iraungiko da (205.1 art), baina, arau honetatik salbuetsia geratzen dira orden publikoaren kontrakoak diren akordioak. Salbuespen honen arrazoia da ezin dela onartu urtebeteko epea pasata orden publikoaren kontrako akordioak, kausaren larritasunagatik, ontzat ematea. Izan ere, iraungipen epea pasata akordio deusezak baliozkoak bihurtzen dira. Arazoa da ez dela erreza identifikatzea zein akordio diren ordena publikoaren aurkakoak, legeak ez bait du kontzeptua zehazten eta doktrinan ez bait da adostasunik aurkitzen¹.

Akordio deusezgarrien kasuan berriz akzioen iraungitze epea askoz ere murriztagoa da, hain zuzen, *berrogei egunekoa* (205.2 art).

Akordio deusezetan zein deusezgarrietan iraungipen epeak akordioa hartzen den epetik hasiko dira kontatzen eta, inskribagarriak badira, Merkataritza Erregistroko Boletik Ofizialean argitaratzen direnetik.

2.4.3. Legitimazioa

Akordioen aurka joateko legitimazioa desberdina da akordioa deuseza edo deusezgarria denaren arabera (206.art.).

¹ Interesagarriak dira Auzitegi Gorenaren epaien artean, beste batzuen artean, honako hauek: 2007ko maiatzak 30ekoa, 2007ko azaroak 29koa, 2005eko azaroak 28koa edo 2002ko otsailak 5ekoa.

Akordioa deuseza bada bazkide guztiek, administratzaileek eta hirugarren interesdunek izango dute legitimazioa. Aldiz, *akordioa deusezgarria bada* aurka bozkatu duten bazkideek, egon ez direnek, botoa eman ahal izan ez dutenek eta administratzailek izango dute legitimazioa.

Legitimazio pasiboa baltzuari dagokio.

Bestalde, aurkatu diren akordioen alde egin zuten bazkideek aukera izango dute euren kabuz prozesuan parte hartzeko akordio horien balizkotasuna aldarrikatzeko (206.4 art.).

2.4.4. Ondorioak

Arau orokorra da akordioen aurkapenaren inguruan emandako epaiak bazkide guztiei eragiten diela nahiz eta auzian parte ez hartu. Akordio sozialak ezin du ondoriorik izan bazkide batzuentzat bai eta besteentzat ez, hortaz, aurkapen akzioa ontzat ematen duen epaiak guztientzat izango du eragina.

Hirugarrenen kasuan, ulertu behar da beraien posizioa ez dela bazkideek duten bera eta beraz epaiak ezin duela fede onez sortu diren eskubideengan eraginik izan (LEC 222.3.III.art.).

2.4.5. Arau prozesalak

Akordio sozialen aurkapen akzioak prozedura arruntaren arauen bitartez burutuko da (207.art.) eta aurkapenak ezagutzeko eskumendunak izango dira baltzuko egoitza sozialeko epaile eta auzitegiek.

Aurkapen arrazoia ezabatzeko aukera egongo balitz auziperatutako baltzuari epe bat emango zaio akatsa zuzentzeko (207.2 art.).

3. ADMINISTRAZIO ORGANOA

3.1. Kontzeptua.

Kapitalezko baltzuek euren barne zein kanpoko harremanetarako beharrezkoa dute aldi berean lan exekutiboa eta ordezkatzailea burutzen duen organo bat, baita, baltzuaren eguneroko kudeaketa eramaten duena eta hirugarrenekin ematen diren harremanetan ordezkatzeko duena. Eskakizun guzti hauek betetzeko gai da, hain zuzen, baltzuaren administrazio organoa (209.art.).

Organo hau *beharrezkoa* zein *iraupenezkoa* da, hau da, beharrezkoa da baltzua eratzeko unean baina baita ondoren ere eta iraupenezkoa dela diogu helburu sozialak betetzeko asmoz jarduera kudeatzaile bat burutzen duelako inork ezin duena ordezkatu.

Esandakoaren arabera, administrazio organoak kapitalezko baltzuetan funtziorik nagusia betetzen duela azpimarratu daiteke. Izan ere, batzar orokorraren akordioak exekutatzean eta bere eskumeneko gaien inguruan hartzen dituen erabaki guztien ondorioz esan daiteke baltzuko bizitza guztia bertatik jariatzen dela eta berak burututako jarduerak ekarriko duela baltzuaren arrakasta ala porrota.

Administrazio Organoaren egiturari dagokionez, Legeak askatasun handia uzten die bakideei *administrazioa antolatze*ko aukera desberdinak aipatuz (210.art.).

Lau dira legeak jasotzen dituen antolatze moduak: 1) administratzaile bakarra; 2) modu solidarioan jarduten duten administratzaile bat baino gehiago; 3) modu bateratuak jarduten duten administratzaile bat baino gehiago; eta, 4) administrazio kontseilua.

Baltzu anonimoen kasuan legeak dio administrazio bateratu bat bi administratzaile ematen zaienean hauek modu mankomunatuan jardungo dutela eta administratzaile biri baino gehiagori ematen zaienean berriz administrazio kontseilua eratuko dela (210.2 art.). *Erantzukizun mugatuko baltzuen kasuan*, estatutuetan administrazioa antolatze egitura desberdinak

jaso daitezke batzarrak ahalmena izanik ezarritako moduetako bat hautatzeko, modu alternatiboan, estatutuan aldaketarik egin gabe (210.3 art.).

3.2. Administratzaileak

3.2.1. Izendapena

Legeak ez ditu baldintza bereziak galdatzen administratzaile kargua betetzeko, gainera, estatutuek kontrakorik esaten ez badute administratzaile izateko *ez da beharrezkoa bazkidea izatea*. Bestalde, administratzailea *jarduteko gaitasun osoa duen pertsona fisikoa edo juridikoa* izan daiteke (212.art.).

Esan bezala Legeak ez du baldintza berezirik eskatzen administrazio postua betetzeko, baina, bai ezartzen ditu *zenbait bateraezintasun edo debeku* postu hori betetzeko (213.art.). Debeku horiek batez ere adingabeentzako, ezgaituentzako, inhabilitatuak izan direnentzako, delituengatik kondenatuak daudenezako eta legezko baterazintasunengatik eragindako pertsonentzako ezartzen dira.

Baltzua kudeatu eta ordezkatzeko duten lehenengo administratzaileak eraketa eskrituran agertu beharko dute. Ondoren egiten diren izendapen guztiak batzar orokorrak egin beharko ditu eta ezingo da funtzio hori beste organu batengan delegatu. Gainera, batzar orokorrak administratzaileak izendatzeaz gain administratzaileak bete beharreko bermeak zeintzuk diren adierazi ahalko du (214.2 art.).

Administratzaileen izendapenak ondorioak izango ditu onartzen den unetik (214.3 art.).

3.2.2. Administratzaileen eta baltzuaren arteko harremana

Administratzaileak izendatzen direnean, baltzuaren egituraren barnean *posizio organiko* bat hartzen dute gutxieneko eta ezabaezina den eduki funtzional batzuekin zeinari ahalmen zein betebeharrak (225-232.artk.) eransten zaizkion.

Bestalde, administratzailea *baltzuko organo bihurtzen* denez funtzio hori betetzen duen pertsonak burutzen dituen egintza guztiak baltzuari egotzi beharko zaizkio. Hortaz, argi dago administratzailearen lan-harremana berezia dela eta bere ahalmenak zeintzuk diren Legeak arautuko dituela. Ondorioz, kapitalezko baltzuek ezingo diote mugarik jarri administratzaileari (ez gutxienez kanpora begira eragina dutenak), zeren, euren lana objektu sozialak markatzen dituen mugetaraino zabalduko da.

3.2.3. Karguaren iraupena, kargugabetzea

Administratzailearen karguaren iraupena desberdina da kapitalezko baltzuaren arabera (221.art.). Honela, *erantzukizun mugatuko baltzuen kasuan* administratzaileak denbora mugagabez arituko dira, beti ere, estatutuetan epe jakin baterako sortzen ez bada kargua. Azken kasu honetan aurreikusi daiteke kargua uztean berriz ere denbora berdinerako berhautatzea. *Baltzu anonimoen kasuan egoera bestelakoa da*, izan ere, estatutuek ezarriko dute administratzaileak zenbat denboraz arituko diren baina epe horrek ezin izango du sei urte baino gehiagokoa izan eta guztientzat berdina izango da. Hala ere, kasu hauetan ere berhautatu daitezke administratzaileak.

Kargugabetzeari dagokionez, *administratzaileak edozein unetan eta justifikazioarik (ad nutum) gabe kargugabetu* daitezke batzar orokorraren bitartez nahiz eta hori eguneko zerrendaren barne ez egon (223.art.). Soilik, erantzukizun mugatuko baltzuetan eskatu daiteke gehiengo berezi bat (inoiz ez bi herenak baino gehiagokoa) kargugabetzea emateko.

Kargugabetze orokorraz gain, legeak baltzu anonimoetan administratzaileak kargugabetzeko egoera berezi batzuk aurreikusten ditu (224.art.). Honela, legeak ezartzen dituen debekuetan murgilduta dagoen administratzailea bereala ordezkatu behar da edozein akziodunek eskatzen duenean (224.1 art.). Honetaz gain, administratzaileak baltzuaren interesekin kontrajarriak diren interesak baditu batzar orokorrak hartutako

akordioaren bitartez bere kargua utzi beharko du edozein bazkidek horrela eskatuko balu (224.2 art.).

3.2.4. Ordainsariak

Legeak esaten du administratzaileen kargua *dohainezkoa* dela, baina, estatutuek kontrakoa badiote eurek ezarri beharko dutela zehatz-mehatz ordaintzeko sistema nolakoa izango den (217.art.).

Bereziki jasotzen dira legean *onuretan parte hartzeko* aukera (S.L.-218.art.) edo *akzioak jasotzekoa* (S.A.-219.art.).

3.3. Baltzuaren ordezkapena

Legeak administratzaileei baltzua ordezkatzeko funtzioa aitortzen die eta honekin batera sinadura sozialaz baliotzeko, honek dakarren ondorioarekin: baltzua lotu hirugarrenekin sortutako harremanetan. Legeak administratzeko eredu bakoitzean ordezkatzeko ahalmenak nork duen zehazten du (233. art.).

Ahalmen hori estatutuetan ezarritako objektu sozialak mugatuko du (234.art.). Ezingo da ez estatutuen bitartez ez batzarraren akordio baten bitartez eremu horren barnean mugarik ezarri, ez behintzat hirugarrenekiko efektuekin (234.1 II art.). Bestalde, baltzua fede oneko eta erru larririk gabe jardun duten hirugarrenen aurrean lotua geratuko da nahiz eta Merkataritzako Erregistroan inskribatutako estatutuek ondorioztatu egintza hori baltzuaren objektutik kanpo geratzen dela.

3.4. Administrazio kontseilua

3.4.1. Kontseiluaren eraketa eta bere berritza

Administrazio Kontseilua eratzea beharrezkoa da baltzu anonimoetan administrazio bateratua edo amankomuna bi administratzaile baino gehiagori ematen zaienean. Erantzukuzun mugatuko baltzuetan organo honek ez dauka derrigorrezko izaera hori (210.2/3.art.).

Administrazio Kontseilua *eratzeko* gutxienez hiru kide egon beharko dira. Hala ere, estatutuek ezarriko dute zenbat kidek eratuko duten edo kideen gehiengoa eta gutxiengoa. Berezitasun gisa, erantzukizun mugatuko baltzuan kideak gehienez hamabi izango dira (242.2 art.).

Administratzaileak *berritzeari* dagokionez, baltzu anonimoetan gehienez sei urtez jardun dezakeela esan behar da, dena den bere izendapean berritzea posible da. Erantzunkizun mugatuko baltzuan berriz denbora mugagabez (221.art.).

Administratzaileen izendapena batzarrari dagokio (214.1 art.) eta gehiengo arruntez erabakiko da, baina legeak bi salbuespen aurrikusten ditu baltzu anonimoaren kasuan. Alde batetik gutxiengoari bere ordezkari bat izandatzeko aukera ematen dio eta bestetik kontseiluari bakanteak sortzen direnean, horiek betetzeko. Lehenengo supostua (proportziozko ordezkapena) 243. artikuluan jasotzen da. Bertan jasotzen den eskubidea egikaritzeko biltzen diren akzioak lortzen duten kapital zenbatekoa kapitalaren eta kontseilukide kopuruaren arteko zatiketa egitearen ondorioz lortutako zenbatekoaren bestekoa edo hortik gorakoa bada, akzio horiek dituztenek administratzaileak izenda ditzakete, proportzio horretatik ondorioztatzen denaren arabera, betiere zatiki osoak gaindituz. Ahalmen hori erabiliz gero, batutako akzioek ez dute parte hartuko gainerako kontseilukideen botazioan. Bigarren salbuespena (kooptazioa) 244. artikuluan dugu. Bakanteak sortuz gero, kontseiluak postuok betetzeko pertsonak izenda ditzake akziodunen artean, lehenengo batzar orokorra bildu arte. Honek erabakiko du izendapena berresten duen edo beste administratzaile bat izendatzen duen.

3.4.2. Antolaketa eta bere funtzionamendua

Administrazio kontseiluaren antolaketa eta funtzionamendua desberdina izango da kapitalezko bi baltzuetan (245. art.).

Erantzukizun mugatuko baltzuan, estatutuek ezarriko dute Administrazio Kontseiluaren antolaketa edota funtzionamendua nolakoa izango den. Bertan jaso beharko dira deialdirako eta organoa eratzeko arauak eta baita erabakiak hartzeko gehiengoak.

Baltzu anonimoan berriz, estatutuek bestelakorik esan ezean, Administrazio Kontseiluak berak bere lehendakaria izendatu, bere funtzionamendua arautu eta kontseilarien dimisioa onartu dezake.

3.4.3. Eskuordetzeak eta ahalorde-emateak

Administrazio Kontseilua kideanitzekoa eta korporatiboa izanik ez da batzuetan, bereziki baltzu handienen kasuan, organo egokia kudeaketa sozialak galdatzen dituen zenbait arazoei modu jarraitu eta egoki batean erantzuteko, batez ere, kide askok osatzen dutenean. Horregatik, egitura malguago eta bizkorrago bat lortzearren oso ohikoa da Kontseiluak bere jarduerak bere kide baten edo batzuen eskuetan uztea (eskuordetza hori estatutuetan jaso daiteke edo Kontseiluak berak erabaki dezake bere eginkizunak antolatzeko askatasunaren barnean -249 art.-).

Posible da kudeaketa eta ordezkapen ahalmena kontseilari batengan bakarrik delegatzea, zeinak antzekotasun handia izango lukeen administratzaile bakarraren figurarekin. Posible da baita kontseilari delegatu gehiago izendatzea bakoitzaren ahalmen eremua mugatuz edo posible da batzorde exekutibo bat izendatzea. Ez dago arazorik batzorde bat eta kontseilari delegatuak (bat edo gehiago, solidarioak edo mankomunatuak) izendatzeko. Kasu hauetan kontseiluak zuzendaritza eto kontrol funtzioa izango du.

Eskuordetzak mugatuak direnean kontseilari delegatuak jasotako ahalmenen eremuan jokatu beharko du, baina muga horiek gainditzeak ez du eraginik izango hirugarrenengan, hori bai erantzun beharko du baltzuaren aurrean.

Legeak *ahalmen jakin batzuk eskuordetzatik kanpo* uzten ditu euren garrantzia dela eta. Ahalmen horiek dira, besteak beste, gestio sozialaren

emaitzen berri ematea eta Batzar Orokorrari balantzea aurkeztea (249. 2 art.).

Eskuordetza organiko hauetaz gain kontseiluak borondatezko ordezkariak ere izendatu ditzake (249.1 art. “bestelako ahalordeak eman diezazkioke edozein pertsonari”). Ordezkari hauei merkataritzako kodearen eraentza aplikatuko zaie (283 art.).

3.4.4. Akordioen aurkapena

Batzarraren akordioekin gertatzen den bezala, kontseiluaren akordioak ere aurkagarriak dira (251.art.).

Legeak adierazten du administratzaileek aurkatu ditzaketela Administrazio Kontseiluaren edo adminitrazioko edozein organoren erabaki deusezak edo deusezgarriak (hauek zehazteko batzar orokorrean aipatutako irizpide berak erabiltzen dira), erabakiak hartzen direnetik 30 egunetan. Era berean, aipatutako erabakiak bazkideengatik ere aurkatuak izan daitezke, beti ere, kapital sozialaren %5a ordezkatzan badute eta erabakiaren berri izan zutenetik 30 eguneko epeak (erabakia hartu zenetik urte bete pasa ez bada).

Aurkapenen tramitazioari dagokionez, batzar orokorrarentzat ezarritako eraentza bera aplikatuko da.

3.5. Administratzaileen erantzukizuna

Kontuan izanik administratzaileek ahalmen eta eskumen zabalak dituztela, euren erantzukizuna ere parekoa da, euren jarduera okerragatik duten erantzukizuna zorrotza dela esan daiteke. Erantzukizun zibilera mugatzen badugu gure komentarioa (kanpo uzten ditugu hemen erantzukizun penala eta administratiboa) kapitalezko baltzuen legean eta lege konkurtsalean hiru sistema jasotzen direla esan behar dugu, ez beti ondo bateragarriak direnak.

Erantzukizunaren sistema orokorra 236-241. artikuluetan jasotzen da. Hau da orain ikusiko duguna. Horretaz gain administratzaileek erantzuten dute desegitea ez bultzatzeagatik desegite kausa bat dagoenean (367 art.) eta baltzuaren konkurtso egoeran konkurtso hori errudun bezala kalifikatzen denean (Lege konkurtsalaren 172 bis art.).

3.5.1. Presupostuak

Legeak, 236. artikuluan, dio administratzaileak baltzuaren, bazkideen eta hartzekodunen aurrean erantzungo duela bere jarduera edo ez egiteak legearen edo estatutuen kontrakoak izan badira edo bestela bere karguari dagozkion betebeharrak (225.art. aipatutakoak) errespetatu gabe burutu baditu. Bestalde, legeak argi uzten du egintza edo erabaki kaltegarria batzar orokorrak hartu, baimendu edo berretsi arren, administratzaileak erantzukizun horretatik ez direla salbuetsiko (236.2 art.).

Administratzaileari erantzukizuna eskatzeko, kalte-ordaina eskatzen duenak zuhurtzigabekeriaz gain, kalte bat eragin dela eta *harreman kausala* dagoela administratzaileak egindakoaren eta kaltearen artean frogatu beharko du.

Erantzukizun solidarioa dute egintza kaltegarria gauzatu edo erabaki kaltegarria hartu duen administrazio-organoaren kide guztiek, ondokoek izan ezik: erabakia hartu edo betearaztean esku ez hartzeaz gain, hartu denik ez zekitelako, edo jakin arren, kalteak saihesteko beharrezkoa den guztia egin zutela frogatzen dutenek, edo gutxienez, erabakiaren aurka esan-bidez jo zutenek (237. art.).

3.5.2. Akzio soziala (238. art.)

Administratzaileen jarduera kaltegarriak zuzenean baltzuari eragin badio honek akzio sozialaren bitartez *baltzuaren ondarean sorturiko kalteen ordainketa* eskatu dezake.

Akzio hau bideratzeko *legitimatua* dira; lehenik baltzua, ondoren modo subsidiarioan bazkideak (ondare sozialean zeharkako interesa dutelako) eta azkenik hartzekodunak (ondare soziala euren bermea denez, hori murrizten bada kaltetuak suertatzen direlako). Akzio soziala sozietatearen ondarea berregitera zuzenduta dago, beraz, nahiz eta bazkideek edo hartzekodunek tarteratu, indemnizazioa sozietatearentzat izango da.

3.5.3. Akzio indibiduala (241. art.)

Akzio indibiduala administratzaileen jarduera kaltegarriagatik zuzenean kaltetuak suertatu diren bazkide zein hirugarrenek tarteratu dezaketen akzioa da. Beraz, akzio honen helburua bazkideen eta hartzekodunaren ondarean sorturiko kaltea ordaintzea da.

Esandakoa kontutan hartuta beraz, legitimatua dagoena kaltetua izan dena da.